

Blogak

bilatu...

Bilatu



Eskuorri galdua

Oier Guillan

Mezua: Ibañeta Saran

2008-10-18

▢ [Agendaren labirintoan](#). 357 hitz

Ibañeta Saran

IBAÑETA SARAN

Ibañeta antzezlanaren ikusteko aukera dugu bihar Saran, 17:00etan, Lur Berrin. Haize Berri elkartearen eta Artedramaren eskutik.

Larzabalen ikusteko aukera izan nuen nik, bigarren egunean, urriaren 4an. Disfrutatu nuen. Guztiarekin, ezin uka. Sarrerako instalazioarekin, osotasunaren dramaturgiarekin, aktoreen lanarekin, zuzendaritzarekin, eta baita giroarekin ere.

Instalazioarekin diot. Pette eta Gonzalo Etxeberriaren lanak gehiagotan ikusteko aukera ukan dut, azken hilabeteotan, eta aintzat hartzekoak dira zinez: arras kreatiboak, kritikoak eta umore handikoak tarteka.

Giroarekin diot, iparraldean (ez dut gustuko behin eta berriz ezberdintasunak azpimarratzen ibiltzea, baina oraingoz hala da) antzezlan bat ikustea hitzordu herrikoi bat izan daiteke oraindik, erritual txiki-handi bat, sarrera bat ordaindu eta produktu bat jaso baino zer edo zer gehiago. Airearen bezain funtsezkoa dut hori, eta hegoaldeko antzokietan ito egiten naiz sarri.

Osotasunaren dramaturgiarekin diot, bete betean asmatu baitute aktoreak esku txotxongilotuekin irtenarazten, euskaldunon sentimendu historikoa izaki. Zinez eskergarria da saiakera gainera, hau da, ez konformatzea antzezlanaren muntatze hutsarekin, mezuarekin joan daitekeen lengoia propioa bilatzea, egungo testuinguruari uko egin gabe, estetikoki ere egungo testuinguruan kokatuz.

Eta aktoreen lana zein zuzendaritzarekin diot, izan ere, eskuorri galdu honetan behin baino gehiagotan mintzatu izan baino amateurtasunaren zein profesionaltasunaren erlatibotasunaz, batoren zein besteren indargunez eta ahulgunez. Bada, hemen (ustezko) bi munduek bat egin dutelakoan nago. Aktoreen esperientzia eta indar amateurren batetik, egiten dutenarekiko maitasuneko alegia, freskoa baita haien konfiantza; ez itsua, baina bai argia, antzezlaneko pertsonaia bat gogoan. Bat egin dute aktoreen izaera amateurren eta zuzendaritza profesionala. Profesionala diogunean esperientziaduna diogu batik bat, ikerketa eta dramaturgia orori garrantzia ematen diona, aktoreen gaitasun maitasuneko teatroaren moduekiko maitasuna duen eskuarekin elkartzen duena. Emaiztan nabarmena da oso elkarlan hori, Ander Lipusen esku hori.

Eta Larzabal. Ausarta da, izan ere, egile hori aukeratu izana, egun, iragan gertua eta orainaren arteko zubia eraiki nahirik; emaitza etorkizuna da, norberaren ESKU dagoena.

Agian kritiko zorrotzen batek esango luke "mugimendu hau, ahots hori, argi hura...". Egia aitortuko dizuet: niri bost. Kalitatezko euskal antzerkia ikusi nuen Larzabalen, eta esaldi honetan ez zait hitz bakar bat ere sobratzen. Urtean horrelako hamarnaka batzuk iristen zaizkigun egunean, sortzen eta programatzen (hitz hori...!) direnean, orduan agian sartuko zaigu gogoan garrantzi gutxiagoko xehetasunetan sartzeko.

Bien artean, ongi etorri emoziora, ongi etorri euskal teatroa!

[2 erantzun](#)

Erantzunak:

Bidaltzailea: Idurre Eskisabel [Kidea]

Oier, guztiz ados zurekin. Zorionak Ibañeta hori posible egin duten guztiei.

2008-10-18 @ 13:43

ESKUORRI GALDUA

Oholtza guztien ginetik, foko guztien azpitik... "Arte eszenikoak" deritzon arloa zabala bezain zehazgabea suertatzen ahal da, etengabeko bilaketa eta krisian dagoen arlo artistiko bat delako agian. Zerk bultzatzen du pertsona bat taula gainera igotzea? Zerk animatzen du publiko handi zein txiki baten aurrean aldiro biluztu eta komunikatu nahi izatera? Are gehiago, zerk euskaraz biluztera, hautu horrek aktuatzear gain kixote txiki baten moduko lana eskatzen dionean taulatik at? Agenda kulturaletan naufragoen gisan dabilzan taula gaineko izaki bitxi horien inguruko gogoetak biltzeko gerturatu naiz txoko honetara, posible den neurrian arte eszenikoen mundura gerturatzeko zeharbideak eskaintzera.

Ekaina 2009						
Ast	Ast	Ast	Ost	Ost	Lar	Iga
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

▀ [Azken erantzunak](#)

BILAKETA

- Hitz guztiak
 Hitz bat
 Esaldi osoa

Bilaketa

ATALAK

- ▀ [All](#)
- ▀ [Agendaren labirintoan](#) (39)
- ▀ [ahantziuraren kronika](#) (35)
- ▀ [Guztiak](#) (5)
- ▀ [Sormen apunteak](#) (16)
- ▀ [Testuak](#) (7)
- ▀ [Ttor-ttor](#) (5)

Aukeratutakoa ikus

BLOG HAU SINDIKATU [XML](#)

- ▀ RSS 0.92: [Mezuak](#), [Erantzunak](#)
- ▀ RSS 1.0: [Mezuak](#), [Erantzunak](#)
- ▀ RSS 2.0: [Mezuak](#), [Erantzunak](#)
- ▀ Atom: [Mezuak](#), [Erantzunak](#)

[What is RSS?](#)

powered by
b2evolution

**Bidaltzailea: ttiki [Bisitaria]**

Ados Oier hala da. Ipar Euskal Herrian egiten den antzerki amateurraren mailakorik ez da hegoaldean, batez ere Lukuren eta Mattin Irigoienen testuak dituztenak bezalakorik. Eta hegoaldeko jokalaria profesionalak baino iparraldeko amateurrak badira hobeak, ezbairik gabe.

Ez hori bakarrik, bada giro herrikoi bat horren inguruan, engaimendua jokalarien edo aktoreen aldetik, testuen idazleen aldetik, ze sekulako lana egiten dute, sosik ikusi gabe.

Pena da, hegoaldeko batzuk besterik ez dugula antzerki horren berri (beharbada pentsatuko dute pastoralak direla hemengo antzerki guziak?) asko gozatuko zenukete.

2008-10-20 @ 00:56

**Erantzun:**

Izena:

Eposta:

Zure eposta ez da orrialdean erakutsiko.

Webgunea:

Zure URL-a erakutsiko da.

Mezua:

Onartutako XHTML etiketak: <p, ul, ol, li, dl, dt, dd, address, blockquote, ins, del, a, span, bdo, br, em, strong, dfn, code, samp, kdb, var, cite, abbr, acronym, q, sub, sup, tt, i, b, big, small>
URLs, email, AIM and ICQs will be converted automatically.

- Aukerak:**
- Auto-BR** (Lerro saltoak
 bihurtzen dira)
 - Nire datuak gogoratu** (Izena, eposta & url-arentzako cookiak finkatu)

001880

Egiaztapen

kodea:

Erantzuna bidaltzeko idatz ezazu goiko eremuan egiaztapen kodea; goiko aldean ageri den zenbakia, alegia. OHARRA: Zure erantzuna onartzen ez bada, orrialdea berriro kargatu eta kode berria sortu beharko duzu erantzuna bidali aurretik!